



# SAIO DRAMATIKOAK

Irrati-antzerkia




# Dramatiko motak



- Denbora-iraupenari dagokionez
  - Antzezlan bakarrak: antzerti-lanak, esketxak, dokudramak...
  - Seriedunak: irrati-nobelak, serialak
- Sortze-prozesuari dagokionez
  - Irratirako pentsaturiko jatorrizko lanak
  - Beste lan-motako moldaketak edo egokitzapenak (esaterako, lan literarioen moldaketak).



# Irratsaio dramatikoak (sailkapena)



- ✓ Irrati-nobela eta seriala: irratorako espresuki idatzita eta atalez atal garatzen den narrazio dramatiko.
- ✓ Dokudrama: informazio- eta fikzio-generoen artean kokatuta, gertaera (erreal) baten antzezpena da.
- ✓ Esketxa: iraupen laburreko antzezpena (gehienetan, umorezkoa).
- ✓ Testu literario baten irakurketa dramatiko
- ✓ Literatur edo ikus-entzunezko lan baten moldaketa



# Moldaketa baten gidoia



- Soinuen bidez adierazi jatorrizko testuan hitzez edo irudiz agerturiko elementu deskriptiboak (gaueko hotsak erabili, gaua girotzeko, esaterako).
- Narratzailea beharrezkoa denean soilik erabili (soinuen bidez adierazi ezin duguna azaltzeko).
- Pertsonaien arteko elkarrizketak erabili "entzuten" ez diren deskripzioak azaltzeko.
- Testu literarioa ahozko hizkuntzara egokitu.
- Kontakizunean ezer gutxi aportatzen dituzten datuak baztertu.



# Pertsonaien karakterizazioa dramatikoetan



- Pertsonaiek ekintza aurrera eramaten dute antzezpenetan. Horregatik funtsezkoak dira saio dramatikoetan.
- Idazleak pertsonaien deskripzio zehatza egingo du (bereziki entzumenaz bereiz daitezkeen ezaugarriak azalduta): ezaugarri fisiologikoak, psikologikoak eta soziologikoak adierazi.
- Hizkerari dagokionez, hitz egiteko era eta pertsonaiaren nortasunaren arteko koherentzia izan behar da (ezin dute guztiek berdin hitz egin).
- Koherentzia mantendu pertsonaiaren garapenean, eta ekintza ezberdinetan izandako jarrerak kontuan hartu, egoera berrien aurrean.
- Ez erabili pertsonai gehiegi, eta kontuz ahotsak erabiltzeko orduan, oso ezaguna den bat erabiltzeak sinesgarritasun arazoak sortarazi ahal ditu. Ezin zaie ahots berbera pertsonaia ezberdinei egokitu.




# Elkarrizketaren funtzioa saio dramatikoetan



Pertsonaien arteko elkarrizketak garrantzi handia du istorioa aurrera eramane eta lekuak, egoerak zein pertsonaiak deskribatzeko orduan.

1. Istorioa aurrera eramaten du.
2. Entzuleari datuak eta ikusi ezind ituen gertaerak azaltzen dizkio.
3. Pertsonaien ezaugarri fisikoak eta psikologiak azaltzen ditu.
4. Pertsonaien arteko harremanak zehazten ditu.
5. Gatazkak agerian uzten ditu.
6. Egintzak argitzen ditu.
7. Denboran eta lekuan saltoak egiteko aukera ematen dute.



# Sinesgarritasunaren arazoa fikziozko saioetan



Fikziozko kontakizunetan, egoera sinestezinak ere azaltzen dizkigute gidoi-idazleek.

Hondoko musikak laguntzen digu hainbat egoeretako dramatismoa azpimarratzeko.

Denboran eta lekuan elipsiak daude...

Eta horrek guztiak ez du oztokatzen entzuleak benetakoa balitz jasotzea...

Hori horrela izan dadin, bai idazleak bai entzuleak **itun narratiboa** sinatzen dute, eta kode bat partekatzen dute... eta horrela da istorioak barne-koherentzia mantentzen duen bitartean.

